



Jardunaldi-zikloa **Garapenaz harago: bide berriak zabaltzeko teoriak, ikuspegiak eta esperientziak**

Datak:

- 2020ko urtarrilaren 23a, osteguna
- 2020ko otsailaren 27a, osteguna
- 2020ko martxoaren 26a, osteguna

Lekua: Sarrikoko Fakultateko Areto Nagusia

Koordinatzaile taldea: Iker Etxano, Juan Telleria, Leticia Urretabizkaia, Unai Villalba y Yeni García

POSTGARAPENA ETA BESTE ALTERNATIBA PRAKTIKO BATZUK

2020ko urtarrilaren 23a, osteguna

Lekua: Sarrikoko Fakultateko Areto Nagusia

Koordinazio Akademikoa: Juan Telleria eta Unai Villalba

Hizlariak

- **Rosalba Icaza**

Mexikar jatorriko aktibista feminista dekoloniala; biziraulea, ama eta herri-hezitzailea. Rosalba Herbehereetako Erasmus van Rotterdam unibertsitateko irakaslea eta Gizarte Ikasketen Institutuko Politika Global, Genero eta Aniztasun arloko ikerlaria da. Erakunde horretan Aniztasun eta Inklusio Taldeko zuzendaria ere bada eta irakurketa eta des-ikasketa dekolonialen taldea biltzeaz arduratzen da. Honako hauek dira bere azken agitalpenak: Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning UK: Routledge (Sara de Jong eta Olivia Rutazibwarekin) eta En tiempos de Muerte: Cuerpos, Rebeldías, Resistencias, Mexico: CLACSO/RETOS (Xochitl Leyva Solanorekin). Rosalba Red Transnacional Otros Saberes (RETOS) nazioarteko sareko kidea da eta Unitierra Lurraren Unibertsitatearekin lan egiten du.

- **Sarah Radcliffe**

Latinoamerikako Geografia Irakasle Titularra da Cambridgeko Unibertsitatean eta Christ's Collegeko akademikoa. Ikerketa Dekolonialaren Laborategiko (Decolonial Research Lab) koordinatzailea da Cambridgeko Unibertsitateko Geografia Sailean eta Infrastructural Geographies ikerketa-taldeko kidea. Honako lan hauek argitaratu ditu, besteak beste: Dilemmas of Difference: Indigenous women and the limits of postcolonial development policy (Duke University Press, 2015), 'Development for a Postneoliberal Era? Sumak Kawsay, Living Well and the Limits to Decolonization in Ecuador'(Geoforum 43: 240-249, 2012).

- **Alberto Acosta**
Aitaita. Ekonomista ekuadortarra. Energia eta Meatzaritza ministro ohia, Batzar Konstituziogilearen lehendakari ohia. Naturaren Eskubideen Nazioarteko Auzitegiko epailea. Unibertsitate-irakaslea. Hainbat liburu idatzi ditu. Batik bat gizarte-mugimenduen borroken laguna da.
- **Antonio Luis Hidalgo-Capitán:**
Ekonomia Aplikatuko Irakasle Titularra. *Transdisciplinari@s* ikerketa-taldeko koodinatzailea eta Huelvako Unibertsitateko Pentsamendu Garaikideari eta Gizarte Garapenerako Berrikuntzari buruzko Ikerketa Zentroko kidea. Argitalpen hauetan parte hartu du: *Sumak Kawsay Yuyay. Antología del pensamiento indigenista ecuatoriano sobre el sumak kawsay* (CIM-PYDLOS, 2014); *Transmodernidad y transdesarrollo. El decrecimiento y el buen vivir como dos versiones análogas de un transdesarrollo transmoderno* (Bonanza, 2016); eta *Los Objetivos del Buen Vivir a escala global. Una crítica de los Objetivos de Desarrollo Sostenible y una propuesta alternativa transmoderna* (Bonanza, 2018).
- **Federico Demaria:**
Ekonomia ekologikoaren eta ekologia politikoaren arloko ikertzailea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB). UABko deshazkundeari buruzko masterreko irakaslea, Research & Degrowth elkarteko kidea eta ingurumen-justiziaren aldeko mugimenduari laguntzen dion EnvJustice ikerketa-proiektuaren koodinatzaile laguntzailea da. Honako liburu hauen koodinatzailekidea da: “Decrecimiento: Vocabulario para una Nueva Era” (Icaria, 2015) eta “Pluriverso: Diccionario del Posdesarrollo” (Icaria, 2019).
- **Nacho Martínez:**
Garapen Ikasketetan doktorea da UPV/EHU eta Politika-Zientzia irakaslea Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Gaur egun, gizarte zibilari buruzko ikerketa-taldea koodinatzen du REEDESen, Hegoaren Garapen eta Lankidetza Politikei buruzko Ikerketa Taldean parte hartzen du, eta La Mundial kolektiboan ikertzaile aritzen da.
- **Amaia del Río Martínez**
Soziologian lizentziatua, Garapena eta Nazioarteko Lankidetza masterra eta Generoa eta Garapena masterra. Bi hamarkada inguru daramatza Hegoako Hezkuntza taldean. Horretan, hezkuntza emantzipatzailea hainbat eremutan finkatu nahi duten hausnarketetan eta esperientzietan parte hartzen du. Mundua pentsatzeko erantzun osoak ematen ez dituzten eta boterea etengabe zalantzan jartzen duten ikuspegiak interesatzen zaizkio gehien. Gema Celoriorekin batera *Gizartearekin konprometitutako Unibertsitate bat lortzeko bidean. Ikuspegi hori Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) txertatzeko bide estrategikoak* dokumentua argitaratu du (2018).
- **Gema Celorio Díaz**
Geografia eta Historian lizentziatua da Kantabriako Unibertsitatean. UPV/EHUko Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuaren Hezkuntza taldean lan egiten du. Gizartearen eraldatzeko hezkuntzari buruzko ikerketak egin ditu eta gida-planei eta plan pedagogikoei buruz aholku eman die hainbat erakunderi. Irakasle aritzen da hainbat masterretan eta gaur egunera arte ospatu diren garapenerako hezkuntzari buruzko lau kongresuen antolaketa-batzordean parte hartu du. Amaia del Riorrekin argitaratu berri du *La Universidad como espacio para la educación y la transformación social* (2018).
- **Ana Fornes:**
Giza-zientzietan lizentziatua da eta Pentsamendu Filosofiko Garaikidean doktoregaia Valentziako Unibertsitatean. Gaur egun, La Mundial kolektiboko eta AIETiko ikasketa- eta prestakuntza-arduraduna da Extremaduran. Giza mugikortasunean, arrazakerian eta elkartasun internazionalistan aditua da ikuspegi feminista eta eskubide-ikuspegi batetik.

BESTELAKO FEMINISMOAK ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA

2020ko otsailaren 27a, osteguna

Lekua: Sarrikoko Fakultateko Areto Nagusia

Koordinazio Akademikoa: Leticia Urretabizkaia eta Yeni García

Hizlariak

- **Yuderkys Espinosa:**

Afrokaribetar pentsalari feminista, arrazakeriaren aurkakoa eta dekoloniala. Dominikar Errepublikan jaioa eta orain dela 18 urte migratua, kontinentez kontinente dabil bestelako munduei buruzko aukerak eta ideiak zabaldu nahian, borrokak artikulatuz, elkarrizketak zabalduz. GLEFAS ikasketa, prestakuntza eta ekintza feministaren Latinoamerikako taldeko kide fundatzailea da eta bertan geopolitikoki kokatutako idazketa eta pentsamendu baten alde lan egiten du. Gaur egun, Latinoamerikako feminismoaren kritika bat sortzen dihardu horrek eurozentrismoarekin eta kolonialtasunarekin duen konpromisoagatik. Santo Domingo Institutu Teknologikoko eta Gizarte Zientzien Latinoamerikako Fakultateko ikertzaile independentea da. Honako lan hauek argitaratu ditu, besteak beste: "Yuderkys Espinosa Miñoso: Textos seleccionados" (2017); "Hacia la construcción de la historia de un (des)encuentro: la razón feminista y la agencia antiracista y decolonial en abya yala" (2017); "De por qué es necesario un feminismo descolonial: diferenciación, dominación coconstitutiva de la modernidad occidental y el fin de la política de identidad" (2017).

- **Tica Moreno:**

Soziologian doktorea da eta SOF Sempre Viva Organização Feminista taldeko kidea. Hortik, herri-hezkuntza prozesuetan, emakumeen antolaketan eta Latinoamerikako gizarte-mugimenduen artikulazioan parte hartzen du. Red Economía y Feminismo (REF) sareko eta Brasilgo Emakumeen Mundu Martxaren koordinazio-taldeko kidea da.

- **Amaia Pérez Orozco:**

Ekonomian doktorea. "Colectiva XXK. Feminismos, pensamiento y acción" kolektiboko kidea da. Gogoz parte hartzen du hainbat gizarte mugimendutan, bai ekintza militanteari bai lan-jarduerari dagokionez. Feminismotik ekonomiaren kritika sistemikoa egiten saiatzen da, beste ikuspegi kritiko batzuekin lotuta. Honako hau da bere lanik aipagarriena: Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida" (2014, Traficantes de Sueños)

- **R. Lucas Platero Méndez:**

Alde batetik, Juan de la Cierva ikertzailea da UABko Gizarte-Psikologia sailean eta, bestetik, Bellaterra argitaletxean argitaratzaile aritzen da. Gainera, sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko aktibista da eta akademiko ospetsua trans ikasketen arloan, horri buruzko hainbat argitalpen dituelarik. Soziologian eta Politika-Zientzietan doktorea da UNEDen eta honako proiektu hauetako kidea: "Cruising the 1970s-CRUSEV" (2016-19) HERA europar proiektua eta CSICeko Filosofía Institutuko Zientzia, Teknologia eta Gizarte saileko "Voces múltiples, saberes plurales y tecnologías biomédicas" (2016-19). Honako hauek dira bere azken liburuak: "Trans*exualidades" (2014); "Por un chato de vino" (2015); "Barbarismos queer y otras esdrújulas" (2017) eta "Cuerpos Marcados. Vidas que cuentan y políticas públicas" (2019).

- **SEMPREVIVA ORGANIZAÇÃO FEMINISTA: Tica Moreno**

SOF erakunde feminista São Paulon kokatutako gobernuz kanpoko erakundea da. Erakundeak Brasilgo eta nazioarteko emakumeen mugimenduan parte hartzen du. Tica Morenok, bada, SOFek ekonomia solidarioaren eta agroekologia feministaren eraikuntzan izan duen esperientzia partekatuko digu. Haien esperientzian honako hauek aurkituko ditugu: emakumeen auto-antolaketa prozesua, autonomia pertsonal eta kolektiboaren arteko harremana eta edozein lurraldetan alternatibak sustatu ahal izateko ereduari aurre egin beharra.

- **AFROFÉMINAS: Regla Margarita Junco**

Euskadiraiko Afroféminas proiektuaren ordezkaria da. Kubatarra, Gipuzkoan bizi da. Turismoa, Bidai-Agentziak eta Ekitaldien Kudeaketa arloko goi teknikaria da.

Afroféminas esperientzia asko, bizipen asko eta problematika berari buruz hitz egiteko batzen diren ahots asko dira; hain zuzen, oraindik feminismo hegemonikoan ez dela emakume guztiei justizia egiten dien diskurtsoa ematen eta horren borrokak erdiko klaseko emakume zurien interesak dituela helburu.

Gorputz heterogeneoak eta anitzak gara, zapalkuntza desberdinak pairatzen ditugu eta, hortaz, lehenetsi beharreko interesak desberdinak dira gutako bakoitzarentzat. Gorputz bakoitzari dagokion intersekzioa alde batera uzten dugunean, gorputza bera uzten dugu alde batera eta, horren ondorioz, ez da berdinen arteko elkarriketa ematen. Feminismoan intersekzionalitate hori emakumeen eskubideen zati negoziatzen bezala txertatzen denean soilik lortu ahal izango dugu guztiontzako gizarte-justizia.

- **OSATZE FEMINISTA Aniaiz Ariznabarreta**

Bizitzarekin, norberarekin eta besteekin harreman askeago bat izan beharrak aukera eman dio zenbait muga gainditzeko tresnak lortzeko, besteak beste, honako hauen bitartez: militantzia politikoa, feminismoa (Bilgune Feminista, Osatze lantaldea), agroekologia (EHNE-Bizkaia), makrobiotika, barne alkimia (Yakin eskola) eta taldeak erraztea (IIFACE).

Osatze lantaldearen arabera, osatze feminista proposamen politikoa da, sendatze-prozesuak ahalbidetzen eta askatasunean bizi diren gorputz-buru eta identitateak sortzen laguntzen duena. Sistema kapitalista neoliberalak, arrazistak, kolonialistak eta patriarkalak hainbat mekanismo erabiltzen ditu gorputzak kontrolatzeko, hala nola, desgaitzea eta indarkeria eta horiek gure gorputz indibidual eta kolektiboetan minak eta aztarnak uzten dituzte. Horren jakitun, dagokigun horretaz ardura gaitzen proposatzen digu Osatzek. Banaka eta elkarrekin, pairatzen ditugun eta erabiltzen ditugun indarkeriez arduratzea, hain zuzen. Hala, hori guztion ardura izatea proposatzen du, eta bakoitzak berari dagokion zatiaz arduratzea. Osatzeren arabera, lan hori gorputzetik eta elkarrekin egin behar da, bizitzaren hegemonia onartuz, bere arau eta mugekin. Hori dela eta, osatzea praktika barru-barrukoa, kolektiboa eta politikoa dela azaltzen digute. Barrukoa da, norbere gorputzarekiko harremanei, bizi-zikloi eta/edo garai desberdinei arreta ematen dielako. Politikoa da, barruko dimentsio horretatik abiatuta eraldaketak proposatzen dituelako. Eta kolektiboa da besteekin garelako: “Ni sendatzen banaiz, zu sendatzen zara. Zu sendatzen bazara, ni sendatzen naiz. Guztiok sendatzen gara, guztia sendatzen da”.

- **BARTZELONAKO UDALAK ZAINZA DEMOKRATIZATZEKO MARTXAN JARRITAKO NEURRIA: Marta Cruells**

Politika-Zientzia doktorea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernu eta Politika Publikoen Institutuan. Gironako eta Viceko Unibertsitateetan irakasle laguntzailea izan da. Bere ibilbide profesionalean, besteak beste, berdintasun-politiken hainbat ebaluazio koordinatu ditu; hainbat administrazio eta erakunderi aholkua eman die, genero-politiken arloan; eta lanak argitaratu ditu hainbat liburu eta aldizkaritan. Azken 4 urteetan Bartzelonako udaleko Feminismo eta LGBTIren zinegotzigoko eta Nazioarteko Harremanen zinegotzigoko bulegoen buru izan da.

Bartzelonako udaletik “zaintzak demokratizatze” neurri horri forma emateko eta hori sustatzeko egin zuten lana azalduko digu Martak. Horretarako, bada, hiru helburu nagusi hauek lehenetsi zituzten: a) zaintzak hiriaren bizitza sozioekonomikoaren funtsezko zati bat direla onartzea; b) kalitatezko zaintza duinak izateko eskubidea bermatzeko gizarte-eragile guztien ardurakidetzat sustatzea; eta c) gaur egun zaintza ematean eta jasotzean nagusi diren gizarte- eta genero-desberdintasunak murriztea.

- **PAZ Y SOLIDARIDAD: Laura Vega**

Lankidetzatza proiektuen teknikaria da Paz y Solidaridad Euskadi fundazioan. 2005. urtetik, hainbat herri indigenaren eskubide kolektiboak exijitzeko prozesuak lagundu ditu. Herri indigenekin duen lan-harreman horretaz gain, emakumeen eta migranteen kolektiboekin eta beste zenbait kolektiborekin duen eguneroko eta gertuko harremana azpimarratzen du. Izan ere, kolektibo horiek bere eraldaketa pertsonalean lagundu diote. Mujeres del mundo “Babel” - Munduko Emakumeak kolektiboan izana da eta gaur egun Azalak kolektiboan parte hartzen du. Azalak kolektiboa pertsona zuriez eta afrikar jatorriko pertsonen osatutako familiek osatzen dute eta arrazakeriaren aurka borrokatze helburua du.

Laurak, Euskal Herriko GGKE batek lurraldea defendatzeko eta bizitze ona (Sumak Kausay) garatzeko prozesu batean emandako bide-laguntzaren esperientzia kontatuko digu. Defentsa horren protagonistak Ekuadorreko Amazoniako Pastaza probintziako kitxua herriak dira; eta haiei emandako bide-laguntza Sacha Supai Bioteknologia-Institutu Kitxua tokiko erakundeak burutzen dituen garapenerako lankidetzatza-proiektuen bitartez gauzatu da. *Sumak Kausaya* bizitza erdigunean jartzen duen eta harreman-ontologietan oinarritzen den bizi filosofia eta tresna politikoa da. Hori, modernitatearen epistemea zalantzan jarriz, feminismo dekolonialarekin lotzen da eta “generoko kolonialtasun bat inposatzen dugun” moduaren gainean interpelatzeko gaitu.

Tailerrak

- **Irizpide anitzeko ebaluazio soziala: *nola bilatu konpromiso-interbideak gatazka sozio-ekologikoko egoeren aurrean?*** Gonzalo Gamboa (Arran de Terra).

Irizpide anitzeko ebaluazio soziala (IAES) gatazkan izan daitezkeen hautaketa alternatiba desberdinak ebaluatzerakoan konpromiso-konponbideak bilatzen laguntzen duen tresna da. IAESak dimentsio anitzeko irizpideak integratzen ditu (ekonomikoak, ekologikoak, sozialak, instituzionalak, etab.) alternatibak ebaluatzeko eta alderatzeko. Beste alde batetik, alternatiba horiek ebaluatzeko, partaidetza-prozesuen bitartez parte hartzen duten eragileen ikuspegia kontuan hartzen du. Tailer honetan, tresna hori erabaki publikoak hartzeko erabilgarria dela ikusiko dugu eta, batez ere, gatazka sozio-ekologikoei aurre egiteko duen ahalmena ulertuko dugu.

- **Materialen fluxuen analisia: *zer nolako garrantzia du garapen-ereduan materialen eta energiaren erabilera?*** María Cristina Vallejo (FLACSO Ecuador).

Gizarte-metabolismoaren eremuan, materialen fluxuen azterketa metodologia bat da, bizi-zikloan zehar ekonomiek erabiltzen dituzten materialen osaera eta bolumena ezagutzeko balio duena. Tresna horrek ekonomiaren oinarri fisikoaren ikuspegi globala eskaintzen du eta gizartearen ongizate-maila eta naturak baliabideak sortzeko eta hondakinak eta emisioak hartzeko duen gaitasuna lotzen dituzten adierazleak ematen ditu. Tailerrak, bada, Iparraldeko zein Hegoaldeko herrialdeek materialen erabilerarekiko duten interdependentzia azaltzeko eta horri buruz eztabaidatzeko helburua du.

- **Sistemen-dinamika: *Ba al dugu iraunkortasunera igarotzerik kaos klimatikoa heldu baino lehen?*** Iñigo Capellán eta Carmen Duce (Valladolideko Unibertsitateko Ekonomia, Energia eta Sistema-dinamika taldea).

Sistema-dinamika sistema konplexuek denboran zehar duten jokabidea ikertzeko balio duen metodologia da. Horretan, ikertutako sisteman giltzarri diren aldagaien arteko harremanak identifikatzen ditugu. Tailer honetan metodologia horren oinarriak aztertuko ditugu eta, MEDEAS-World energia-ekonomia-ingurumen simulazio eredua aplikatzeko adibideen bitartez, horren ahalmenak ezagutuko ditugu. Eredu horrek, bada, aurrez erabakitako helburuen arabera (biztanleria, hazkunde ekonomikoa, bilakaera teknologikoa, etab.), mundu-mailako agertokiak irudikatzeko aukera ematen du, baita jasangarritasunera igarotzeko estrategia desberdinen ondorioak ebaluatzeko eta horien mugei eta bideragarritasunari buruz eztabaidatzeko ere.

- **Óscar Carpintero.**

Ekonomian doktorea eta Ekonomia Aplikatuko irakaslea da Valladolideko Unibertsitatean. Azken urteetan ekonomia ekologikoaren, metabolismo ekonomikoaren, Espainiako ekonomiaren ingurumen-jasangarritasunaren, energia eta sistema-dinamikaren edo merkataritza eta ingurumenaren arloetan lan egin du. Hori dela eta, hainbat artikulu argitaratu ditu nazioarteko eta nazio-mailako zenbait aldizkaritan. Honako hauek dira bere libururik aipagarrienak: La bioeconomía de Georgescu-Roegen, (Bartzelona, Montesinos, 2006), eta El metabolismo de la economía española: Recursos naturales y huella ecológica (1955-2000) (Lanzarote, Fundación César Manrique, 2005).

- **Yayo Herrero:**

Antropologoa, Gizarte-hezitzailea eta Nekazaritza Ingeniari Teknikoa da; Ingurumen Hezkuntza eta Garapen Iraunkorreko UNESCO katedrako irakaslea-laguntzailea (UNED); Garúa S. Coop. Mad. Kooperatibako bazkidea-langilea; gizarte ekologiar buruzko hoge liburu baino gehiagotan parte hartu du eta hainbat artikulu idatzi ditu; Hegoako argitalpen batzordeko kidea da. Ecologistas en Acción erakundearen Koordinatzaile Konfederala izan zen 2005 eta 2014 artean.

- **Unai Pascual:**

Ikerbasque irakaslea da Basque Centre for Climate Change zentroan, ingurumen ekonomian doktorea Yorkeko Unibertsitatean (Erresuma Batua). Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko mundu-mailako loturak aztertzen ditu, marko sozio-ekologikoak erabiliz eta gobernantza prozesuetan arreta jarritz. 20 urte baino gehiagoko esperientzia du ikerketan; horietatik 15 Erresuma Batuko unibertsitateetan eman ditu (Cambridge, Manchester eta York). Lan asko argitaratu ditu: hamar liburu eta monografiko, 100 artikulu baino gehiago nazioartean ospea duten aldizkarietan eta 40 kapitulu inguru liburu espezializatu desberdinetan (ikus argitalpenak). Nazioarteko hainbat sare zientifikotan parte hartzen du eta gaur egun IPBES bioaniztasunari eta ekosistemen zerbitzuei buruzko gobernu arteko plataformaren “Naturaren Balioen Ebaluazio”ko presidentekidea da. Gainera, Euskal Herriko hainbat hedabidetan kolaboratzailea da, hala nola, ETBn, Radio Euskadin eta Berrian.

Esperientziak

- **ACCIÓN ECOLÓGICA. Esperanza Martínez:**

Biologoa, abokatua eta ingurumen-auditorea da eta Ekuadorreko Acción Ecológica erakundeko kide fundatzailea. Oilwatch hegoaldeko nazioarteko sarearen koordinatzailea eta fundatzailea ere izan zen. Batzar Nazional Konstituziogilean aholkulari aritu zen eta Naturaren eskubideak eta beste ingurumen-eskubide batzuk sustatu zituen. Azken urteetan, petrolio Yasuniko lur-azpian uztearen aldeko kanpaina buru-belarri ibili da. Naturaren eskubideei, petrolioari eta ingurumenaren aldeko borrokei buruzko zenbait artikulu eta liburu argitaratu ditu.

Esperanzak Ekuadorreko Acción Ecológica erakundeak egiten duen lana aurkeztuko digu. Erakunde horrek 30 urte baino gehiago daramatza tokiko eta mundu-mailako gaien gainean lan egiten ikuspegi ekologista batetik. Batez ere emakumeez osatutako kolektibo bat da. Petrolioaren, meatzaritzaren, transgenikoen, proiektu hidroelektrikoen eta komunitateei lurrak kentzen dizkioten beste hainbat megaproiektuen arloan lan egiten du. Kaltetutako komunitateei lagun egiten die, horien erresistentziarako eta eskubideak eta bizitza defendatzeko gaitasuna indartzen laguntzeko asmoz. Acción Ecológica hegoaldeko nazioarteko hainbat sareren parte da eta hasieratik sustatu ditu horiek, esate baterako, Oilwatch, Ralt eta Meatzaritzak kaltetutako emakumeen sarea. Bere konpromisoa justizia ekologikoaren idealak, herrien eskubideak eta naturaren eskubideak lortzea da, indarkeriarik gabe baina indarrez.

- **RED DE TRANSICIÓN. Cristian Moyano Fernández**

Filosofia moraleko ikertzailea da UABan eta doktoregaia ICTAn (Zientzia eta Ingurumen Teknologien Institutua). Espainiako Red de Transición sareko talde motorreko kidea da.

Cristianek aurkeztuko digun esperientzia trantsizio mugimenduari buruzkoa da. Sarea etorkizunaren ikuspegi optimista eta praktikoa da, mundu-mailako krisi ekosozialaren aurrean alternatiba izan nahi duena. Espainiako estatuko trantsizio sarearen kide bezala, Cristianek gure komunitateetan aldaketa arintzeko helburua duen bizi-proiektu hori martxan jartzeko modua eta tresna praktikoa azalduko dizkigu. Trantsizio sarea gizartea eraldatzeko esperimendu inklusiboa da eta, ikuspegi sistemiko baten bitartez komunitateen erresilientzia leheneratzeko eta ekonomia birlokalizatzeko helburua du. Hain zuzen ere, martxan dagoen eta bilakatzen ari den mugimendu batez ari gara, non ingurunea osasuntsuago, bidezkoago eta biziago bihurtzeko pasioa duten hainbat pertsonak parte hartzen duten.

- **EHNE-BIZKAIA. Alazne Intxauspe**

EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazaritza sindikatu bat da, hain zuzen ere, 1976-1977 urteetan sortutako nekazaritza arloko erakunde profesionala. EHNE-Bizkaia hainbat urte eman ditu bai aldarrikatzen bai proposamenak egiten ere eta, orain, Euskal Herria osoan elikadura burujabetza sustatzea du helburu nagusia. Elikadura burujabetza, bada, kontzeptu giltzarria da; izan ere, erabakitze gaitasuna aldarrikatzen du baina ondo informatutako gizarte batek nahi duen hori oinarri hartuta; hau da, osasuna, kalitatea, ingurumena eta klima errespetatzea, eta baserri-eremuko lana eta bizitasuna ere bermatzen dituen gertuko ekoizpen agroekologikoa.

EHNE-Bizkaia estatu-mailako COAG erakundeko, CPEko, Europako Via Campesinaren Koordinakundeko eta nazioarteko Via Campesinako kidea da. Halaber, Euskal Herriko elikadura burujabetzaren aldeko nekazaritza- eta gizarte-mugimendu baten aldekoa da.